

-

HIZTUNAK PLAZAN -

EUSKARALDIA : HIZTUNEAN ETA PLAZAN ERAGIN NAHIA

Jenofa Berhokoirigoin.

Arreta hiztunetara zuzendu aitzin, plazari, hots, testuinguruari begiratu behar diogu. Hori egiten ez bada, euskararen erabilpenaren aktibaziorako pistek/giltzek benetako aktibazio bat ondorioztatu dutenik ezin delako segurtatu. Nola ez, plazak eragina duelako hiztunarengain. Funtsean, hiztunak plazarengain ukan dezakeen gisara. Ipar Euskal Herriari mugatuko diogu arreta.

Plazak egiten gaitu eta plaza egiten dugu.

1- Nolakoa dugu plaza ?

Alde kuantitatiboari begiratzen badiogu, VI. Inkesta soziolinguistikoak oroitarazten digu : **euskaldunek guttiengoa osatzen dugu** : 16 urtez goragoko biztanleriaren %20,5 gara Ipar Euskal Herrian (%28,4 Euskal Herri osoari so eginez gero). Ezberdintasun handiak ditugu hiru lurraldeen artean, Baxe Nafarroan eta Zuberoan % 49,5 gara, Lapurdin % 16,1. Xehekiago begiratzuz biztanleriaren %40 inguru biltzen dituen Baiona Angelu Miarritze huntan euskaldunak gara %8,4.

Horrez gain, ebidentzia ere oroitarazi behar izaten denez, **euskarak ez du ezagupenik Ipar Euskal Herrian** ; frantsesa ofiziala dugu eta frantses hiztunen eskubideak beti eta beti errespetatuak baldin badira, gureak ez dira ezagutuak, euskara ez delako aitortua. Euskal Elkargoak ofizialki aitortu berri du bertako hizkuntza dela euskara, baina hori ez da ofizialtasuna, berez euskarak eta euskal hiztunak ez du babes gehiago lortu adierazpen honekin. Indar politiko eta sinboliko azkarra du baina euskarak berdin segitzen du. Adierazpen horrek ondorioztatuko dituen neurri eta helburuek ausart izan beharko dute plaza euskaldunago egiteko.

Hori horrela, **diglosia egoera batean gara eta honetan dugu aitzina egin behar**. Hots, frantsesak, funtzionaltasun osoa du, supremazia osoa, eta bestetik, euskarak, funtzionaltasun eta prestigio guti du. Nahi izanez gero, erabili dezakegu euskara, baina legeak ez digu eskubide hori bermatzen eta ez ulertua izatearen arriskua dugu beraz.

Gainera, dinamikoa dugu diglosia, erran nahi du, hizkuntza batek, gure kasuan, frantsesak, bestearen funtzio eta erabilera eremu berri batzuk bereganatzen dituela denborarekin.

2. Eraitza zuzena : erabilpena behera doa.

Ez da harrigarri horrelako plaza denean, hizkuntza gutxituaren erabilpenak behera egitea. Euskal hiztunok ez dugu nahi ala ahal bezainbeste erabiltzen. **16 urtez goragokoen artean, %18,3ak du erabiltzen (hautetan, %8,1ak frantsesa bezainbat ala gehiago).**

Bistan da, eremu batetik bestera, erabilpenaren heina ez da bera : egoera larriena Baiona Miarritze Angeluk osatu hiri-eremuan dugu, %5ak du erabiltzen (hautetan, %0,8ak frantsesa bezainbat ala gehiago) ; Lapurdin (BAM kendurik) %21,4ak, (%9ak frantsesa bezainbat ala gehiago) ; Baxe Nafarroa eta Zuberoan, 49,1ak (%27,9ak frantsesa bezainbat ala gehiago). Dena dela, izan herrixketan ala hirietan tendentzia bera dugu: euskara ez dugu ahal edota nahi bezainbat erabiltzen.

Azken hogeitun urteetan maldan behera doa euskararen erabilpena : bost puntuz jeitsi da euskara frantsesa baino gehiago ala bezainbat erabiltzen dutenen kopurua (%13,3 ziren 1996ean, %8,1 dira 2016ean).

3. Hori horrela, zer egin ? Hiztunak aktibatu !

Garen kopuruari eta erabilpenaren heinari begiratuz gero, potentzial horri begiratu behar diogu eta ahal bezain bat aktibatu. Bistan da, ez da bide bakarra. Bistan da, lege babesik gabe hizkuntza baten biharra ez da sekula segurtatua. Hiztunen aktibazioa ez da bide bakarra, besteak ere behar dira (aldarrikapen politikoak, euskarazko hezkuntza sistemen garapena ala beste), baina hala eta guztiz ere, beste bideak ez dira nahiko bide hau gabe.

Ondoko puntuan aipaturiko EUSKARALDIA ekimenak hori du helburu. Aurten hiztunetan jartzen du argia, ondoko urtean, seguruenik entitateetan (instituzioak, elkarteak, komertzioak eta beste) jarriko duenean, hiztunaren aktibazioa ez delako aski eta bidea erraztu behar zaiolako.

Euskararen erabilpenak nahi bezainbeste behera egitea ez da baitezpada euskal hiztunengatik, diglosia errealitatearen eta urteetan eraman den hizkuntz ordezkapenaren emaitza ere da. Baina, hautuz ala ohartu gabe, hiztunak ere du bilakaera bideratzen.

Hizkuntza ohiturek badute pizu bilakaera horretan. Zer dira hizkuntza ohiturak ? Pentsatu ala ohartu gabean egiten ditugun hizkuntza erabilpenak.

Nork ez du ezagutzen etxean tira-ahala euskaraz ari dena eta etxetik atera orduko frantsesari lotzen den bat ? Nork ez du ezagutzen biek euskara jakinda ere frantsesez dabilen bikoterik? Nori ez zaio gertatu denda batera sartu, frantsesez galdetu eta bukaeran ohartzea parekoak ere euskara zekiela ? Nori ez zaio gertatu Gau Eskolan buru belarri euskara ikasten dabilenari (eta ikasia ere duenari!) frantsesez egitea ? Nor ez da kausitu herriko gazte euskaldunen artean eta ohartu frantsesez ari direla ? Nork ez du ezagutzen euskara ikasi baina euskaraz adierazteko urratsa nekeegia zaionik ?

Hizkuntza ohiturak ditugula ohartu behar gara. Oinarrian arrazoi ezberdinak daude : aurreiritziak, testuinguru erdalduna, mekanismoak, urte luzeetan burutu euskararen gutxiatea, usaiak, ... Kontzientzia hartze hau da ohitura zaharren deseraikitzearen abiapuntua eta hortik, euskararen alde bideraturiko hautu berrien gauzapena. Euskarari lehentasunez heltzeko joeraren hartzea, hastapenean ariketa gisa, norberak bere burua beharturik, baina ondotik naturaltasunez. Hots, hor ere ohitura gisa... baina aldi hunetan euskararen onerako.

4- EUSKARALDIA izan daiteke parada.

Pello Jauregi irakasle eta euskaltzaleak dionaz, EUSKARALDIA « euskarazko ariketa sozial erraldoi bat » dugu, « aitzaki sozial bat, bultzada bat, giro apropos bat, jende askok hizkuntza ohiturak aldatu ahal izateko ».

Hamaika egunez burutuko dugu euskararen erabilpenaren aktibazio kolektibo hau. Bi profil izanen dira, biak berdin beharrezkoak eta inportanteak :

- Ahobiziaz : trukaketak beti eta beti euskaraz hasteko engaiamendua hartzen dute eta parekoak ulertuz gero, euskaraz segitzen dute.
- Belarriprestak : haiekin euskaraz aritzeko gomita luzatzen diete parekoei, haiek nahi duten heinean euskara erabiliz. Euskara ulertzen dute eta gomita hori luzatuz, nola ez, euskararen normalizazioan eta erabilpenaren aktibazioan partehartzen dute.

Bi profil horien bidez euskararen erabilpena biderkatuko dugu, aitzineko egunetan baino gehiago entzunen dugu euskara plazan. Baina erran gabe doa, guztia ez dela 11 egunei mugatzen. Aurrekoak eta ondorengoak 11 egunek bezainbat inportantzia dute. Hau da, prestakuntzak -bai norberarenak bai ingurunearenak-, EUSKARALDIA ongi iragaiteko gisan eta ondorengoak epe luzera eta euskararen erabilpenean jauzi potoloa emateko helburuarekin gabiltzalako. 11 egunak eraginkorrak baldin badira, ondoko egunetan ere sentituko dira aldaketak.¹.

Aldaketa sentituko da plazan, justuki, EUSKARALDIA ez delako kanpaina bat. Ariketa bat da, aktibazio bat, eraikuntza bat : Ahobizi ala Belarriprest txapa soinean atxikitzeak ez du erran nahi « euskara maite dut » ala « euskara mintzo/ulertzen dut ». Ez, euskaraz aritzeko konpromisoaren keinua da.

EUSKARALDIari doakionez, ideia batzuk lehenestekotan, ondoko bi ezaugarriak liratezke nik uste azpimagarri : herritarra eta kolektiboa dugula.

¹ Lasarte-Orian, 2016ko udazkenean burutu *Irtan armairutik* ekimenari buruzko datuak hor ditugu eraginkortasuna frogatzeko : Euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartu zutenen datuak begirata, egitasmo aitzinetik, %62koa zuten erabilera; ekimenaren unean, %84koa; eta bukatu eta hiru hilabetera, %81ekoa. Hogeit puntuko gorakada, beraz.

Hizkuntza ohiturena hain da pertsonala hain da norberarena, hurbiltasun bat eta elkarrekikotasuna ezinbestekoak direla horretaz aritzerakoan. Kontzientzia hartzea eragiteko ezinbesteko baldintzak ditugu. Horregatik ere da herritarretan zentratzen EUSKARALDIA, herritarren eskutan da gakoa. Herritarrak ari dira herriz herri haien EUSKARALDIA asmatzen, gogoetatzen eta antolatzen.

Ekimena aitzina eramateko elkarlana lehenetsi nahi da eta zentzu horretan, euskalgintza soziala zein instituzionala ere dabilta lanean, elkarrekin, herritarrei bidea erraztu nahian eta plazan eragiteko asmoz.

Ahal bezainbat herritarrek partehartzea dugu helburu, hizkuntza ohiturei buruzko kontzientzia hartzea ahal bezainbat hiztunetan gerta dadin eta noski, euskara ahal bezainbat entzuteko plazan. Herritarra da giltza ariketa burutzerakoan, baita sarea osatzeko orduan, ahoz aho ematen delako informazioa, batak besteari aipatuz, hizkuntza ohituretz ohartaraziz eta EUSKARALDIArako gomita luzatuz.

Horrezgain, herri batetik bestera hain dira errealitateak desberdinak, non eta ezin den antolaketa eredu bakar bat, mezu bakarra asmatu guztientzat. Baiona zein Ezterentzubin bietan du euskararen erabilpenak behera egiten, baina arrazoiak eta dinamikak ezberdinak dira. Bakoitzaren errealitateetik osatu behar da errealitate horretan eragiteko EUSKARALDIA.

Aldaketa ez da denetzat erraza, behar orduan, milaka Ahobizi eta Belarriprestek osatu sareak laguntza eta indarra emanen dio hiztunari. Kolektiboak norbanakoa laguntzeko balio du.

- **Hiztun gisa botere bat dugula oroitarazteko ere balio du EUSKARALDIAk.** Hau da, ekimen honekin ez dugu galdatzen, -egiten dugu-. Behar dugu galdatu, aldarrikatu, exijitu, dudarik gabe, baina hiztun gisa dugun eragina ahal bezainbat baliatu behar dugu. Hori erranda da, jakinik dena ez dela hiztunaren esku, EUSKARALDIAk entitateei ere galdetzen dizkio neurriak eta ondoko urteko ekimena entitateetan zentratuko da.

- Azkenik, erran nezake **euskarazko elkarrizketak berreskuratzeko eta bideratzeko**

tresna ere dugula EUSKARALDIA. Hori interesgarria eta beharrezkoa dugu bizi dugun diglosia egoeran. Mattin Irigoien amikuztar euskaltzaleak Kanaldudeko Zuzenean Zure Esku saioan² zion berriki, diglosia egoeran honetan, elebitasun politikak euskara hutsean ziren gune naturaletara frantsesa sarraraztea ondorioztatu duela (frantses guneak -bakar batzuk salbu-, orokorrean frantses mantenduz). Iragan hurbilari konparaturik, euskara hutsean eramandako gune/une natural gutiago ditugu. Euskara hutsean diren elkarrizketa eta momentu batzuk eskuratuko eta berreskuratzeke balio du eta ez da gutxi. Beti, bazterketarik gabe eta nahi duenarentzat atea irekirik utziz.

Hori guztia laburbiltzeko : EUSKARALDIA tresna interesgarria dugu, hizkuntza ohiturez kontzientzia hartzeko balio digulako. Kontzientzia hartzeak dakarzki hizkuntza hautu berriak, ondotik, ohitura berri bilakatuko diren hautuak. Dena ez da ohiturari mugatzen, beste kontzientzia hartze batzuk badira : hizkuntza batek anitz ekartzen digula, hizkuntza bat ez dela komunikatzeko tresna bat bakarrik ; hiztun gisa boteredun garela eta gure esku ere dela euskararen geroa... Baina, **EUSKARALDIAk hizkuntza ohiturei begira dugu : hizkuntza ohiturak ditu jomuga, lanabes baita helburu ere.**

² EUSKARALDIAz buruturiko saioa, 2018ko ekainaren 14ean.